

# BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 45 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira.</li> <li>• Bi irakurgai eta guztira 25 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du; bigarreanean 0,6 puntu.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 800 hitz gehienez.</li> </ul>	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat** da.

### 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### ETA PANTAILAK, ZERTARAKO?

«Aspertuta nago!». Sakelakoa. «Marrazki bizidunak ikusi nahi ditut». Sakelakoa. Esaldiek osagai berak dituzte: pantaila bat eta haur bat. Geroz eta haur gehiago ikusten dira pantaila baten aurrean, koloreek eta mugimenduek sorgindu egingo balituzte bezala. Adin batetik aurrera pantailen erabilera egokia egitea ez da arazoa, baina zer gertatzen da haurrak geroz eta lehenago hasten badira horiek erabiltzen? Anna Ramis pedagogoaren ustetan, pantailen erabilera goiztiarrak haurrei nahi dutena momentuan lortzeko aukera ematen die: marrazki bizidun hauek ez zaizkiola gustatzen? Aldatu egingo ditu. Aspertu egin da joko honetaz? Beste batean jolastuko da. Horrek beste haur batzuekin erlazionatzeko aukera murrizten die, baita gurasoekin egoteko denbora ere. «Haur txikiek jolastu, deskubritu, korrika egin... Denetik egin behar dute pantaila baten aurrean geldirik egon beharrean».

«Ez dut esan nahi teknologia berriak alde batera utzi behar direnik, baina kontuan izan behar da haurrei pantailak askoz gehiago kentzen dietela, ematen dietena baino», azaldu du Ramisek. Horregatik, tinko mantentzen da haurrek 3 urtera arte pantailarik erabili beharko ez luketela defendatzen. Haurra handitzen joan ahala, 6 bat urte izandakoan, pantailekin egon beharreko denbora pixkanaka luzatuz joan daitekeela esan du Ramisek, baina «denbora hori ez litzateke izan behar bere denbora librearen heren bat baino gehiago», aipatu du.

Hori praktikara eramatea, ordea, ez da lan erraza, eta gizartea kontzientziatu beharra dago eragin negatiboez. Bestalde, 3 urtetik gorako haurretan edukien kalitatea ere kontuan izan beharra dagoela aipatu du: «Elikaduraren kasuan, gurasoek kalitate oneko elikagaiak eman nahi dizkiote haurrari. Teknologiarik dagokionez ere, kalitate oneko elikagai teknologikoak eman behar zaizkio». Gurasoek eredu izan behar dute, «haurren pantailen kontrola helduen pantailen autokontrolatik dator». Helduek azaldu egin behar diete haurrei zer egiten ari diren gailu elektronikoekin.

Ramisek azkenaldian gaiari buruz gehiago jakin nahi duen jendearen kopurua igo egin dela kontatu du. Horrek poztu egiten du, pixkanaka bada ere, jendea kontzientzia hartzen ari delako. «Hala ere, erakunde publikoak presionatu behar direla uste dut, honen inguruan erabakiak hartzeko», salatu nahi izan du. Amaia Arroyo irakasleak ere nabaritu du gurasoen kezka hori eta, bere ustez, «haurrak nola kontrolatu izaten da gehien galdetzen dutena, baina hezkuntzaz ari garenean, ez dugu kontrolatu behar, prebenitu egin behar dugu».

Arroyok gehitu du helduek sarritan erabakiak beren adikzioetatik hartzen dituztela; hau da, sakelarekiko mendekotasuna badute, haurrei segituan emango diete sakelakoa lasaitzeko edo entretenitzeko, benetan behar duten jakin gabe. «Kasu horietan gurasoek egin beharko luketen galdera hau izan beharko litzateke: zertarako? Galdera horren erantzuna garbia ez bada, orduan hobe pantailarik ez ematea», aipatu du. Pantaila bat dagoen momentuan, helduak gidari eta eredu direla esan du ikertzaileak, eta gidaritzaren horretan, haurrei pantailekin ahalik eta harreman osasuntsuena izaten lagundu behar zaiela. «Hala ere, ez dago formula magikorik, familia bakoitzaren eredu eta baliabideak kontuan izan behar direlako beti», adierazi du.

JIMENEZ, A. *Berría*. 2023ko urtarrilaren 10a. Egokitua

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 1. Zer dio testuak pantailaz eta hurrez?

- a) Erabilera goiztiarrak laguntzen diela gurasoekiko harremanetan.
- b) Haurrak hazi ahala pantailen erabilera egokia arazoa dela.
- c) Pantaileri esker umeez segituan lor dezaketela nahi dutena.

### 2. Zer uste du Ramisek umeen pantailen erabileraz?

- a) Hurrei kalte gehiago egiten diela onura baino.
- b) Sei urte bete arte ez lituzketela erabili beharko.
- c) Umetan teknologiak alde batera utzi behar direla.

### 3. Zer da komenigarria gurasoentzat, Ramisen ustez?

- a) Gailu elektronikoak erabiltzean umeentzat eredugarriak izatea.
- b) Seme-alaben aurrean gailu elektronikoak inoiz ez erabiltzea.
- c) Edukien kalitatearen ordeaz, umeez emandako denboraz arduratzea.

### 4. Zer da beharrezkoa umeen pantailen erabileran, adituen ustetan?

- a) Hurrek ematen dieten gehiegizko erabilera kontrolatzea.
- b) Erakunde publikoek afera horretan gehiago parte hartzea.
- c) Jendea gaiaren inguruan kontzientzia hartzen hastea.

### 5. Zer ondorio atera du Arroyok gailu elektronikoez?

- a) Gurasoek jakin badakitela umeez noiz behar dituzten.
- b) Umeen pantailen erabilera egokia gurasoen ardura dela.
- c) Edozein kasutan ere hobe dela umeei inoiz ez ematea.

**GOGORATU:**  
**ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN**

## 2. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

### **BAGARA, OSASUN MENTALERAKO ZERBITZUA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Bagara* zabaldu berri du, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako zerbitzu «berritzaile, komunitario eta autogestionatua». «*Clubhouse*» ereduan oinarritutako baliabidea da, eta «epe luzerako harremanak **6** aukera eskaintzen du, gizarteratzea eta laneratzea erraztuz».

Foru erakundeak eta Gureak elkarteak **7** Bagara zerbitzua Donostiako Easo kalean dago, eta programa pilotu gisa jarri da abian. Eguneko zerbitzua eskaintzen duen gizarte-baliabidearen kontzeptu berria da, errekupeazioan oinarritzen dena eta integrazio komunitarioaren aldeko apustua egiten duena. Errekuperazioan lehen **8** emateko aukera izango dute, eta **9**, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonekin lotutako «estigmak apurtzea» izango du **10**. Zerbitzuaren erabiltzaileak, osasun mentaleko arazoren bat izateaz gain, isolamendu-arriskuan daudenak izango dira. **11**, Bagara programan sartzeko baldintza bakarra osasun mentaleko diagnostiko bat eta profesional baten jarraipena izatea da; baldintza horiek betetzen dituen pertsonak elkarriketa bat egin, eta **12** izango du hasteko aukera.

Bagara komunitatea **13** duten kideek beren egunerokoa, baliabidearen funtzionamendua, eta bakoitzak lortutako **14** erakutsi zizkieten Aldundiko arduradunei. Bisita zazpi erabiltzailek **15** zuten, taldearekin dabiltzan bi profesionalen laguntzarekin, eta bertan izan ziren Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Gizarte Politiketako foru diputatua. Erabiltzaileek argi utzi zuten, baliabidea «malgua» dela, eta haiek **16** dutela zertan eta noiz parte hartu nahi duten. Bakoitzak bere **17** propioa du, eta bertan islatzen dira bakoitzak hainbat eremutan dituen xede pertsonalak, erabiltzaileek **18** eta kudeatzen dituzten jarduera, formazioa eta tailerren bitartez.

Bagara zerbitzua hogeita hamar herrialde baino gehiagotan dabil **19**. Hirurehun zerbitzutik gora ere badaude, eta erabiltzaileei aukera eskaintzen zaie «gizarteratzea eta laneratzea erraztuta, maila integrean suspertzeko. Horrek haien bizi-kalitatean oso **20** positiboa izaten du».

Bagara proiektua iaz **21** zen Gipuzkoan, proba pilotu gisa, eta aurtengo amaierara arte **22** du; orduan egingo da azken balorazioa, eta jarraipenik merezi ote duen ebaluatuko da. Proiektuaren balio nagusiak «baliabide malgua, komunitarioa eta gipuzkoar guztiei irekia» izatea dira, **23** izateaz aparte. Lehen urtean Bagara zerbitzuan izandako kideetatik bederatzik **24** bat egin dute, seik enplegu-bilaketa aktiboa hasi dute, bostek enplegua topatu dute, eta beste bostek beste baliabideren batera jauzi egin dute, **25**, zerbitzu okupazionala edo errehabilitazio psikosozialeko zentrorra.

TOLOSA. M. *Noticias de Gipuzkoa*. 2023ko urtarrilaren 13a. Egokitua

**2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia**

6. a) baimentzeko  
b) suntsitzeko  
c) eraikitzeko  
d) ahultzeko

7. a) erakutsitako  
b) ekoiztutako  
c) gerturatutako  
d) bultzatutako

8. a) premiak  
b) jauziak  
c) urratsak  
d) sarrerak

9. a) hala ere  
b) aldi berean  
c) izan ere  
d) batez beste

10. a) helburu  
b) topagune  
c) bitarteko  
d) ikur

11. a) Horregatik  
b) Bestela  
c) Ordea  
d) Horrezkero

12. a) zail  
b) erabilgarri  
c) sarriago  
d) berehala

13. a) ikertzen  
b) osatzen  
c) metatzen  
d) gogortzen

14. a) aurrerapenak  
b) eskakizunak  
c) aurrekontuak  
d) hutsuneak

15. a) arautu  
b) adostu  
c) gidatu  
d) bildu

16. a) erabakitzen  
b) arakatzen  
c) berritzen  
d) sailkatzen

17. a) irizpide  
b) osagarri  
c) egitasmo  
d) ausardi

18. a) ziurtatzen  
b) urratzen  
c) ukatzen  
d) proposatzen

19. a) elkartean  
b) jardunean  
c) antzean  
d) enkantean

20. a) sari  
b) balio  
c) uste  
d) eragin

21. a) abiatu  
b) sendotu  
c) aurreratu  
d) nabarmendu

22. a) baliatuko  
b) iraungo  
c) bermatuko  
d) jasango

23. a) legekoa  
b) balekoa  
c) jatorrizkoa  
d) doakoa

24. a) irakaskuntzaren  
b) ikerkuntzaren  
c) prestakuntzaren  
d) errakuntzaren

25. a) dena den  
b) esate baterako  
c) azken batean  
d) edonola ere

**GOGORATU:**  
**ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN**

### Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna betetzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

## 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **emaila** idatzi behar duzu.

**Gutxienez 125 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Zu Administrazioko langilea zara. Gaixorik egon zara sei hilabetez, eta lanera itzuli zarenean zure lana beste lankide batek betetzen duela ikusi duzu. Etorri zarenetik hara eta hona zabilta hutsune guztiak betetzen.

Idatz iezaiozu emaila zure arduradunari zure egoeraren berri emateko eta konponbidea proposatzeko eta eskatzeko.

## 2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

**Gutxienez 125 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Arma zuriekin izandako erasoak direla eta, Udala herriko diskotekako segurtasun-neurriak zorroztea aztertzen ari da. Alkateak metal-detektagailuen erabilera baimentzea proposatu du herriko gazteen segurtasuna bermatzeko.

Gaiaren garrantziaz jabeturik, herriko aldizkarian iritzia ematea erabaki duzu.

Azaldu zer gertatzen den diskotekan, esan zuri zertan eragiten dizun eta adierazi alkatearen proposamenaren alde ala aurka zauden eta zergatik.

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik



**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da zuzenduko hemen idatzitakorik

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

- 1. ariketa. aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: «ETA PANTAILAK, ZERTARAKO?»

1.	C	2.	A	3.	A
4.	B	5.	B		

- 2. ariketa. hutsuneak bete.
- Irakurgaia: «BAGARA, OSASUN MENTALERAKO ZERBITZUA»

6.	C	7.	D	8.	C
9.	B	10.	A	11.	A
12.	D	13.	B	14.	A
15.	C	16.	A	17.	C
18.	D	19.	B	20.	D
21.	A	22.	B	23.	D
24.	C	25.	B		